

# **Fase politiko berria Euskal Herrian: ZUTIK EUSKAL HERRIA ZEHAZTEN**

## **0. Hitzaurrea**

Zutik Euskal Herria ebazpena plazaratu genuenetik oraindik bi urte pasatu ez diren arren Ezker Abertzaleak egindako estrategiaren aldaketak dagoeneko zenbait ondorio guztion begi-bistan utzi du. Hamarkadetako borrokek sortutako baldintza politikoetan oinarrituta, Estatuaren blokeo estrategia pitzatzea eta Euskal Herriko abertzale sektoreen artean indarrak biltzea lehentasun zituen estrategia orain ia bi urte abiarazi genuen.

Estatuek ezarritako errepresioaren gorpil zorotik behingoz irteteko eta gure aurkako isolamendu politika hausteko ekimen politikoari heltzea erabaki genuen. Alde bakarreko mugimenduen bitartez gure apustu politikoa ez ezik, egoera politiko berri bat marraztu dugu.

Badakigu gatazka politikoaren konpontzeko prozesuan Estatuak lehenago ala beranduago parte hartu beharko dutena. Baina egia borobil horrek ez gaitu beraiei begira jokatzera behartzen. Ezker Abertzaleak bere Herriari, euskal jendarteari eta nazioarteko komunitateari begira jokatzera erabaki du. Bietan sinergiak bilatzen ditugu, biekiko konplizitate berriak sortu nahi ditugu. Eta emeki-emeki lortzen ari gara.

Honezkero sinesgarritasunaren bataila irabazi dugu. Euskal Herrian jende gehienak badaki Ezker Abertzalearen apustua egiazkoa eta zintzoa dela. Halaber, gauza jakina da Estatuaren borondate politikoa hutsaren hurrena dela. Alabaina, Euskal Herrian bertan aspaldidanik apurtuta zegoen zubi pila berriro eraikitzen hastea ez da horren erraza. Lan horretan gaude. Konfiantzaren batailan, hain zuzen ere. Prozesu hau gure Herriarekin egin nahi dugu, gure indar guztia eta berme bakarra bertan daudela badakigulako.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko udal eta foru hauteskundeek bide onetik goazela erakutsi digute. Isolamendua apurtzea ez ezik, milaka eta milaka herritarren indarrak biltzea lortu dugu. Gezurra dirudi zenbat aurreratu dugun hilabete batzuetan, non eta nola geunden eta non eta nola gauden, baina argi eta garbi dago guztion ahaleginez lortu dugula. Orain amildegirik ez, gure begien aurrean dugu Zutik Euskal Herria-k barne biltzen duen apustu politikoaren ahalmen itzela.

Ezin uka Estatuak Euskal Herriarekiko ukazio eta blokeo estrategiari eutsiz jarraitzen dutela. Baina Zutik Euskal Herria-tik eratorriko ofentsiba politiko osoari esker beraien posizioa politikoki gero eta ahulagoa da eta Euskal Herrian burujabetza amets duten herri sektoreen artean aliantza sendoak sortzeko baldintza berriak sortzen ari gara.

Orain Zutik Euskal Herria-ren garapen estrategikoa zehazteko abagunean gaude. Bi urteotan egindako ibilbidea zaila baina ikusgarria izan da. Hemendik aurrera egin beharko dugun bide luzea, Estatuaren borondate politikorik eza ikusita, ez da errazagoa izango. Hala ere, Ezker Abertzaleak bere estrategia garatzeko gero eta tresna eta baliabide gehiago dauzka. Goazen, bada, guztion artean tresna eta baliabide berri horiek antolatzerara eta baliatzerara.

## **1. Azken hilabeteetako ondorio politiko nagusiak**

Bere garaian halaxe esan genuen: ZUTIK EUSKAL HERRIA ez litzateke posible aurreko berrogeita hamar urteetako borrokek sortutako baldintza politikorik gabe. Gaur egun ere gure hausnarketak oinarri bera izanez jarraitzen du. Berrogeita hamar urteetako borrokek

Euskal Herria asimilatzeko jaio zen marko juridiko-politikoaren porrot egitera eramanez du. Azken hamarkadetan Euskal Herrian burujabetza nahia hil beharrean gero eta zabalagoa izatea lortu dugu.

Bestalde, Estatuak azken urteetan Ezker Abertzalearen estrategia hein handi batean indargabetuta zutela onartu behar izan dugu. Errepresioaren gurrpileroan bueltaketa eta ihes egin ezin, ekimen politikorik gabe Estatuaren blokeo estrategian erabat harrapatuta geunden. Gure kidego guztiaren eginahalak izugarriak izan arren, ez genuen Estatuari kontraesanik sortzeko gaitasunik. Estatuak ezarritako errepresioak eta isolamenduak Ezker Abertzalearen proiektu politikoa minimizazio egoera arriskutsu batera eramatea zuten xede.

Hausnarketa sakona egiteko tenorean geunden. Hala sortu zen ZUTIK EUSKAL HERRIA, ezkerreko independentismoaren proiektu politikoari haize eta ahalmen berriak eman nahian. Estrategia independentista eraberrituz, aliantza politika berriak eta indar metaketa tresna nagusiak izatea erabaki genuen. Ezker Abertzalearen proiektu politikoa eta soziala gehiengo sozial eta politikoen bidez bermatzeko hautua egin genuen, gure Herria, euskal jendartea, gure strategiaren berme bakar bihurtuz.

Baina Estatuaren blokeo estrategia gainditzeko ekimen politikoa berreskuratzea premia zen. Hala, duela bi urte Prozesu Demokratikoa alde bakarreko erabakien bidez sustatzea erabaki genuen. Horrela konfrontazioa parametro demokratikoetan kokatzea genuen helburu, konfrontazioa Estatuaren ahularen dagoen eremura eramanez, alegia. Alde bakarreko urratsek Ezker Abertzalearen ahulezia baino bere sendotasun politikoa agerrarazi dute, betiere gure Herriari eta nazioarteko komunitateari begira egindako mugimenduak izan baitira.

Espaniar Estatuaren "ez-nahikotasunaren" mezuan lasai asko ezarrita, ez zuen bere posizio politikoa astiro-astiro higitzen ari ginela ikusi nahi. Hala, bere blokeo estrategia pitzatzea eta Euskal Herrian ezker ikuspegitik burujabetzaren alde indar biltzea berrietarako baldintzak sortzea lortu dugu. Gure indarrekiko sinesmen osoa oinarri, Estatuaren eta Ezker Abertzalearen arteko indar harremana baino Estatuaren eta Euskal Herriaren burujabetzaren aldeko herri sektoreen arteko indar harremana aldatzeari ekin diogu.

Eusko Alkartasunarekin izenpetutako "Lortu Arte" eta beranduago Alternatiba ere bildu zuen "Euskal Herria Ezkerretik" hitzarmen estrategikoak prozesu honetan funtsezkoak izan dira, beste sektore politikoa batzuekiko lankidetzara iraunkorrerako oinarriak jartzen baitituzte. Halaber, gatazka politikoa konpontzeko ibilbide-erri gisa sortu zen "Gernikako Akordioa"-k Ezker Abertzalearen aurka Estatuak ezarritako isolamendu politika hausteaz gain, gatazka konpontzeko batzuen borondatea eta besteen borondaterik eza agerian utzi ditu. Nazioarteko eragileek Bruselako Adierazpenetik hasita, Nazioarteko Egiaztatze Batzordea sortu arte gatazka konpontzeko prozesuan parte hartu eta laguntzeko konpromisoa behin eta berriz adierazi dute. Jakina, ibilbide horretan ETArekin ekimenak erabakigarriak izan dira oso, bere borondate garbiaren adierazle izan baitira.

Lehen aipatu dugun bezala, Ezker Abertzalea Estatuaren ukazio eta blokeo estrategian harrapatuta zegoen, errepresio basatiari aurre eginez baina ekimen politikorako gaitasunik gabe. Orain, aldiz, ekimen politikoa gure esku dago eta alde bakarreko mugimenduen bitartez egoera politikoa zeharo aldatzea lortu dugu. Errepresioak gure aurka gogor jarraitzen du, baina orain Estatuaren beraren posizioa higituz gurea politikoki indartu egiten du.

Azken hilabeteetan independentismoa aukera eta proiektu politikoa gisa indartzen ari da eta herriz herri, arazoak arazo, burujabetzaren aldeko subjektu instituzional zabala eratzen hasi gara. Gainera, gure alde bakarreko urratsek aurrera egin ahala, Estatuaren borondate politikorik eza euskal herritarren eta nazioarteko eragile askoren begi-bistan gelditzen ari da

eta euskal herritarren aurrean ez ezik, nazioarteko komunitatearen aurrean ere Ezker Abertzalea gatazka politikoa behin betiko konpondu eta itxi nahi duen eragile gisa agertzen da.

Noski, bide honetan zailtasunak handiak izan dira. Bide batez, nekez ahantz dezakegu apustu politiko hau abiatzerakoan zein egoeran geunden, legez kanpo izateaz gain, antolakuntza mailan oso ahul geunden eta. Maila askotan aldaketa sakonak eskatu dizkigun ibilbide hau guztia oso abiadura handian garatu behar izanak barne kohesioa eta apustua egokiro barneratzea zaildu egin du. Gainera, nazio mailako eta herri mailako dinamika politikoen arteko distantzia maiz handiegia izan da. Izan ere, gaur egun ezin dezakegu prozesuak gure herri eta auzoetan oinarria erabat sendo duenik esan. Ondorioz, Prozesu Demokratikoak euskal herrietan lurra hartu eta bertan sustraitzeko lan nagusia egiteke dago.

Azkenik, azken urteetako egoerak nazio estrategia bera arriskuan jarri du, nazio ikuspeirik eza nagusi izan baita. Mugak estrategia baino Ezker Abertzalea bera zatitu omen du, azken hamarkadan alor askotan egindako aurrerapenak atzerantz itzuliz. Zailtasunak zailtasun, kezka bizi hau hurrengo konponbideen iturburu bilaka dezagun.

## **2. Estatuak eta erregionalismoa fase politiko berrian**

### **2.1. Espainiar Estatuak**

Espainiar Estatuak krisi egoera larrian dago. Ekonomiaren krisiak ez ezik, lurralde ereduari dagokion krisiak ere eragiten dio. Egia da espainiar Estatuaren egoera ekonomikoa kezagarria dela oso. Datorren martxoan izan beharreko hauteskunde orokorrak azarora aurreratu izanak egoerak hobera egin beharrean inork non dagoen ez dakien hondoraino jaitsiz jarraituko duela iragartzen du.

Baina esan bezala Estatu botereentzat ekonomiaren egoera ez da kezka iturburu bakarra. Aspalditxotik Estatu botere guneetan autonomia estatu ereduaren inguruan diagnostiko ezkorra egiten dute. Estatuarentzat oso garestia izateaz gain -administrazio gehiena bikoiztea dakar eta- ez du bere sorburuko helburua bete. Estatuak ez du hogeita hamar urteotan ez Euskal Herriaren ez Katalunyan burujabetza nahiak indargabetzea lortu, alegia.

Izan ere, Estatuaren ahulezia politikoa bi nazio horiekiko eskaintza estrategikorik ezean datza. Aurreko eredia agortuta, Estatu aukera historiko baten aurrean izan daiteke, bigarren trantsizio baten atarian, alegia. Orain benetan kultura politiko guztiak barne bil ditzaken prozesua abian jarritz, bere arazo historikoa -nazioanitzeko Estatu izaera- eta bide batez, Euskal Herriko gatazka politikoa behin betiko konpon ditzake. Horretarako Estatuak formulazio asimetriko batera jo beharko luke, autonomia eredia izan zen "*guztiontzako kafe bera*" zaharkitu hura behin betiko atzean utziz. Halako formulazio batean Estatuak bere menpe bizi diren nazio historikoei nazio izaera bera aitortuz, haiei dagokien erabakitze eskubidea aitortuko eta errespetatzeko konpromisoa hartu beharko luke.

Zer esanik ez, halako urratsa emateko heldutasun demokratiko handia behar da eta, ez dirudi espainiar Estatuak aurki bide hori hartuko duenik. Are gehiago, gaur egun bere baitan kontrako joerak nagusitzen ari dira, inboluzio zentralistak, hain zuzen ere. Espainiar nazionalismoa ez dago oraindik Estatuan nazio bat -beraiena, noski- baino gehiago dagoela onartzeko prest, mendeetako errealitatea izan arren. Noski, Estatuaren erreakzio bortitz horiek, are gehiago egungo egoera politikoan, Katalunyan eta batez ere Euskal Herrian independentistak sortzeko faktoria bihurtzen ari dira.

Hala eta guztiz ere, Estatuaren gaineko diagnostiko ezkor honek gure gogoetan sakontzera behartzen gaitu, zeren eta Estatuak ez badu Euskal Herriari eskaintza estrategikorik egiteko gaitasun politikorik, non gelditzen da gatazka politikoa konponduko lukeen Akordio Demokratikorako aukera?

Egiari zor, Estatuan gauzak zeharo aldatu behar dira Akordio Demokratiko batek benetan aukerarik izan dezan. Ez diogu posible ez denik, agian gaur egun erabat ezinezkoa dirudiena bihar edo etzi bideragarria izan daiteke. Nolanahi ere, Ezker Abertzaleak bere burua bi agertoki horietarako prestatu behar du: Estatuarekin Akordio Demokratikorako aukera ala Akordio Demokratikorako aukerarik eza.

Esana dugu Zutik Euskal Herria-tik eratorritako estrategiaren funtsa gure Herriari begira jokatzera dela. Esana dugu gakoak gure Herrian sortuko ditugun aliantza politikak eta bertan egingo ditugun indar metaketak direla. Bada, bai lehenengo agertokian bai bigarrenean gure jarduera ez dugu aldatu behar. Indarrak biltzeak Estatuarekiko Akordio Demokratikoa lortzen lagunduko digu, negoziazio mahaian gure posizioa gero eta indartsuagoa egingo baitu. Estatuak bere blokeo estrategian tematuta jarraituz gero, guk Herri gisa alde bakarreko urratsak eginez jarraituko dugu, Estuari Akordio Demokratikoa egiteko eskua etengabe luzatuz eta bide batez Euskal Herrian gero eta gehiago zabalagoak osatuz. Estatuaren itxikeria erabatekoa dela ikusita, eta Euskal Herrian oso gehiago zabala osatuta, alde bakarreko urratsak eginez jarraituko dugu, noizbait beharrezkoa baldin bada, alde bakarreko independentzia adierazpena egin arte. Jakina, halako urratsa egiteko Euskal Herri osoan indar harremanak zeharo aldatuta egon eta bertako kultura politiko guztien artean oinarritzeko adostasuna erdietsi beharko genuke.

Lehen aipatu bezala bi aukerok ez dute elkar uxatzen, gure lehentasuna Estatuarekiko Akordio Demokratikoa egitea da, baina bere partetik borondate politikorik ez badago, alde bakarreko urrats gehiago egitera behartuko gaitu. Guk urrats bakoitzean metatutako indarra berriro Akordio Demokratikoa lortzearen mesedetan jarriko dugu, baina Estatuaren borondaterik ezaren aurrean Herri gisa aurrera jarraituko dugu.

## **2.2. Frantziar Estatu**

Noski, Europa osoan bezala frantziar Estatuan ere ekonomiaren krisia gogor eragiten ari da, baina Estatuaren egiturak ez dira espainiar Estatuarenak bezain ahulak. Frantziar Estatuak Europan bertan botere buru nagusi gisa ageri zaigu, arlo ekonomiko zein militarrean eta paper horretan ahalegin handiak burutzen ari da. Nolanahi ere, mundu mailan ematen ari diren aldaketek eta joerek, Estatu bera indartzeko barne mailako neurriak hartzera eraman dute. Hor koka genezake lurralde antolaketari loturiko erreforma prozesua, non, orain arteko eredu zentralistan gehiago sakondu eta nazio ukatuen begirunearekiko atzera pauso berriak begiztatzaren diren.

Bestalde, garai batean bere burua giza eskubideen lurraldetzat hartu zuen Estatu gero eta jite antisozial eta atzerakoiagoak hartzen ari da. Esate baterako, migrazioaren aurkako eraso etengabeak, nazio nortasunaren inguruko eztabaida arriskutsua edo euroaginduaren inguruan hartutako jarrera ikusita, frantziar jendarte sektore anitzen aurrean ere, Estatu bere burua deslegitimatzen ari da. Zer esanik ez Euskal Herrian, joera horiei lurralde antolaketaren erreforma prozesutik eratorriko neurriak eranstean zaizkienean. Orain arte "Pays" kontzeptioan oinarrituriko sasi-tresnak (Garapen Kontseilua...) eta eskumen urriak auzitan jartzen ari dira. Hori bakarrik ez, lurraldetasunean atzera pauso nabarmenak emateko arriskua irekitzen du (Zuberoa Biarnorekin edota Biarritz-Angelu-Baiona Landekin lotuz). Euskal Herriko abertzale eremuan ez ezik, beste sektore zabaletan Estatuarekiko harremanak berdefinitzeko abagunea zabaltzen ari da. Azken urteetan euskal departamenduaren aldarriaren aldeko indarrak agertu baldin badira, orain erregioak indartu,

departamenduen desagertzea bideratu eta tokiko eskumenak hutsaren pare geratuko direnean, sektore horietan ere aldarrikapen maila areagotzeko fasean sartzen ari garela esan daiteke.

### **2.3. Erregionalismoa**

Independentismoa aukera eta proiektu politiko gisa indartzen ari den honetan EAJ gero eta urduriago dago, kontraesan larrietan murgildurik. Bere hegemonia arriskuan dakusa eta, ezin diezaioke Ezker Abertzaleari abertzale eremu guztian eragiteko aukera oparitu, besteak beste, Estatuaren aurrean EAJ "baliagarri" egiten zuen ezaugarri nagusia galduko bailuke. Horregatik azkenaldian autodeterminazio eskubidearen aldeko imintzio lotsatiren bat egiten ari da, nonbait Euskal Herriaren burujabetza ardatz dugun indar politikoen ofentsibaren aurrean harresi bat ezarri asmoz. Honako bidegurutzetan dugu EAJ oraintxe bertan: Euskal Herriaren aldeko hautu garbia egiten badu, herritarren babes handiagoa bilduko du baina posizio horrek Madriletik urrundu egingo du, Moncloako maizterra bidelagun hautatuz segitzen badu, herritar babes txikiagoa eskuratzeak jarduera horretarako baliogabetu dezake. Estatuarekiko "*Euskal Herriaren izenean*" interlokuzioa galtzearen beldur izateak EAJ oreka zail horretan, euskal herritarrekiko eskaintza estrategiko argirik gabe, ikustera garamatza. Eszena politikoan nagusitasunetik bazterrerara pasatzeko arriskuak EAJren urratsak gidatuko ei ditu.

Nafarroa Garaian NaBai siglen atzean zer zegoen behingoz agerian gelditu da: EAJ eta bere neurriko esparru erregionalista berri bat sortzeko interesak behingoz biluz-biluzik daude. Jakina, Aralarren babes galdu izanak ez du esparru hori bat-batean indargabetuko, baina bere egiazko neurrian azaltzen lagunduko du. Azken hamarkadan NaBai-ren inguruan sortutako interes pertsonal, ekonomiko, mediatiko eta abarren sareak ez dira gauetik goizera desagertuko, baina egoera politiko berriak eta ilegalizazio aroaren amaierak Nafarroa Garaiko egiazko indar harremana azalera ekarri behar dute.

PSN-k bere burua aldi luze-luze baterako aldaketa politikorako alternatiba gisa erabat baliogabetuz, argi eta garbi dago Nafarroa Garaian aldaketa politikoa bakarrik abertzale guztiok indarrak bilduz etor daitekela.

## **3. Estrategia independentista garatzeko ardatzak**

Zutik Euskal Herria-tik eratorriko estrategia independentista berritua azaltzeko hiru fase aipatu genituen: 1) Gatazka politikoa konpontzeko fasea, 2) Nazio subjektua erakundetzeko fasea eta 3) Independentzia irabazteko fasea. Noski, gure lehentasuna gaur egun lehenengo fasean dago, gatazka den korapiloa askatu gabe zaila baita ondorengo faseetan aurrera egin ahal izatea. Hala ere, estrategia arrakastatsua izan dadin integrala dela ulertuz, bai nazio subjektua osatzeko lan ildoak bai independentziaren aldeko gehiengo sozialak sortzeko jarduerak gaurdanik abian behar ditugu. Jakina, 1., 2. eta 3. faseari dagozkien lan ildoen abiadura eta intentsitatea –eta ondorioz, haietan egin beharreko inbertsioak- lehentasun mailaren arabera desberdinak izango dira. Helburuak lortu eta faseak gainditu ahala lan ildo batzuk desagertuko diren bezala beste batzuk gero eta gehiago indartuko ditugu. Adibidez, independentziaren aldeko borroka ideologikoa ezin dezakegu 3. faseraino iritsiko garen unerako utzi, zeren eta ordurako agian galdutako eremu ideologikoa handiegia baita. Baina argi eta garbi dago lan ildo hori, bere garrantzi estrategikoa ukatu gabe, ezin daitekela gaur egun gure lehentasun bilakatu. Lan ildo guztiak garatu behar ditugu, baina abiadura eta intentsitate desberdinetan, horretarako gure indarrak ahalik eta egokien banatuz.

Estrategia independentistak Euskal Herriaren ukazio eta lurralde zatiketa egoera honetatik euskal subjektu politikoaren eta autodeterminazio eskubidearen aitortza oinarri dituen egoera berria eskuratzera doan trantsizioa marrazten du, handik Herri gisa

independentziaraino jauzia egin asmoz. Estatuak eskaintzen duten asimilazio proiektuaren eta errepresio bideen aurrean, euskal jendartearen gehiengoak erabakitzeko eskubidearen aldeko posizioetara eta proiektu independentistarantz eraman behar dugu. Indarrak biltzearen aldeko apustua egin dugunean, gure Herria euskal gehiengo sozial berriak osatuz menpekotasun eta zatiketa egoera horretatik lurraldetasun eta burujabetza egoerara eraman nahi dugula adierazi dugu.

Horretarako erregionalismo autonomistaren hegemonia politikoa ordezkatzuz, bere burua esparru abertzale osoaren erreferentzia estrategiko gisa agertzea xede duen ezkerreko soberanista eta independentista mugimendu berria antolatzen hasi gara. Euskal jendartearen baitan errail nagusi bihurtzeko anbizioz eta herri ikuspegia garatzeko asmoz jokatu dugu.

Gauza jakina da gatazka politikoaren gakoa Estatuak Euskal Herriarekiko nazio izaera eta erabakitzeko eskubidea aitortzea dela. Aitortza hori lortzeko espainiar eta frantziar Estatuak lehenago ala beranduago prozesu politikoan eman behar den negoziazio politikoetan parte hartzea nahitaezkoa da. Baina iadanik jakin badakigu ez bata ez besteak batere borondaterik ez dutena, ez orain ez ondoren izango ere. Estatuak akordioak erdiesteko denbora zenbat luza daitekeen aurreikus ezin badaiteke ere, estrategia independentistaren baitan Estatuak negoziazio prozesuan behartzeko planteamendu zehatzak egin behar ditugu.

Gure estrategian Estatuak negoziazio horietan parte hartzera eta akordioak egitera behartzeko hartutako bidea argia da oso: aliantza politika berrien bitartez Herri gisa Estatuaren aurrean indarrak bilduz negoziatzera eta adostera behartu nahi ditugu. Estatuaren partetik borondaterik eza topatuz gero, Herri gisa alde bakarreko urratsak eginez jokatzeko hautua egingo dugu. Pausoz pauso indarrak bilduz, horretarako une bakoitzeko baldintzak, beharrak, abiadurak, denborak, prozedurak eta abar kontuan hartuta, Estatuaren borondaterik ezaren aurrean gero eta herritar gehiengo zabalagoak sortu nahi ditugu. Zertarako nahi ditugu gehiengo sozial berriak? Alde bakarreko urrats gehiago egin ahal izateko, hain zuzen ere, beharrezkoa baldin bada, Estatuaren itxikeria luzatzeagatik, independentziaraino, noski.

Ibilbide luzea eta, ondorioz, ikuspegia ahalik eta gehien zabaltzea eskatzen digun estrategia berri honek honako ardatz nagusiak ditu:

### **3.1. Estrategia nazionala gorpuztea**

Estrategia arrakastatsua izan dadin, nahitaez nazionala izan behar du. Jakina, Euskal Herriko lurraldeen izaera eta egoerak desberdinak dira. Estrategia nazionala izateak Euskal Herri osoan bakarra dela adierazten du, nahiz eta bere irizpide nagusiak lurralde bakoitzaren izaeraren eta bertako egoeren arabera egokitu beharko diren. Gaur egun, nahiz eta abiadurak eta moldeak desberdinak izan, Euskal Herriko herrialde guztietan honako mugariak zeharkatuko dituen ibilbidea egin behar dugu: 1) Euskal Herriaren aitortza eta erabakitzeko eskubidearen aldeko gehiengoak osatzea; 2) nazio eraikuntza eta egituratze instituzionalerako estrategia garatzea; 3) indar metaketan oinarrituriko eskaintza elektoralak egitea eta 4) gatazka politikoaren konponbidea bideratzea.

Noski, Lapurdi, Behe Nafarroan eta Zuberoan irizpide horien arabera abian jarriko diren ekinbideak eta Nafarroa Garaian, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan abiaraziko direnak ez dira berez berdinak izango, besteak beste, lau alorretan abiapuntuak oso bestelakoak baitira, baina norabide berean aurrera egin behar dugu eta haietako bakoitzean egingo dugunak gainontzekoak indartu behar ditu. Euskal Herriko indarren arteko konbergentzian urratsak ematen joateak herri prozesuan eta bi Estatuakiko lehian indartsuagoak eta eraginkorragoak egingo gaitu.

### **3.2. Nazio eraikuntza eta subjektu politikoaren egituratzea**

Gure herriarentzat baliabide berriak ekarri behar dituen aldaketa prozesuaren emaitzaren zati nagusi bat nazio eraikuntzaren praktika sozial, politiko eta instituzionala garatzean datza. Independentzia ideologikoki lortzeko moduko helburu gisa indartu ez ezik, urrats praktikoetan gauzatzen joan behar dugun egitasmoa da. Gisa berean, Estatuaren asimilazioari aurre egin eta erabakitzekeo eskubidean oinarrituriko marko berriak lortzeko nazio eraikuntzak funtzio garrantzitsua betetzen du.

Nazio eraikuntza izugarri zabala izanez, Herri egiten gaituzten zutoinetan oinarritutako lana hobetsiko dugu: lurralde batasunean oinarrituriko dinamika herritar, sozial eta instituzionalen sustapena, euskararen normalizaziorantz: ofizialtasuna (lege aldaketak edota lege berriak), Hezkuntza sistema propiorantz: hezkuntza politikarako neurriak (Euskal Curriculumaren aplikazioa edota Euskal Unibertsitatearen sorrera, esaterako), Euskal Herriko selekzioak munduan ofizialki lehiatzeko lanaren bultzada sozial eta instituzionala, Euskal Herriak kulturalki behar dituen egitura berrien eraikuntza eta abar luze bat.

Lurralde zatiketa eta zapalkuntza inposatzen duen amaraun juridiko-politiko eta instituzionala gainditu eta subjektu politikoaren egituraketarako eta lurralde batasunerako bitarteko berriak eskuratzeko proposamen politikoetan sakondu behar da. Hala nola: Euskal Herriko lurraldea oinarri izango duten egitura ekonomiko, kultural eta politikoen garapena, Udalbiltzaren berrantolaketa (udalerrriak oinarritzat izango dituen instituzio nazional gisara eta lurralde batasunean dinamika eta proiektu bateratzaileak bidera ditzakeen erakunde modura), Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiaren arteko harremanetarako behin behineko eredia diseinatzea, Lurralde Eskubide Historikoen (LEH) inguruko hausnarketa sakona burutzea (udal mailako botere politikoaren eta erakunde legegile zein exekutiboen artean sortu beharko litzatekeen mailaketa zehaztuz), Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoaren aitortza politikoan oinarrituriko instituzio propioaren proposamena egitea (hiru lurraldeen garapenerako eskumenak eta Euskal Herriko gainerako herrialdeekiko harremanak finkatu beharko lituzkeen)

### **3.3. Eredu sozial alternatiboa**

Gaur egun mundu osoak pairatzen duen eredu kapitalistaren krisia ondorio lagarriak nonahi uzten ari da. Gainera, argi eta garbi dago globalizazio aro honetan urrutiko arazoak bertakoak direla eta bertako arazoaren eragina ere urrutira joaten dela. Sare produktiboaren ezaugarriak eta gure kokapen geopolitikoa eta ekonomikoa kontuan hartuz, gure herrian ezarri nahi dugun eredu ekonomiko eta sozial berriak eskatzen dituen egiturezko aldaketak aztertu beharrean gara. Ezker abertzaleak aberastasunaren produkzio eta banaketa justu eta erreala bideratzeko neurrien aldeko estrategian aurrera egin behar du, klase ikuspegitik bat egiten duen jarduerarekin koherente izanik. Ezker Abertzaleak aspaldian Euskal Herriak behar duen sozialismo identitarioa ezaugarritu zuen eta bide horretan, noski, aliantza interklasista baten partaide garelako jakitun, aurrera eginez jarraitu behar dugu.

Zentzu horretan, Lan Harremanetarako eta Babes Sozialerako Euskal Markoaren defentsa eta aldarrikapena, euskal esparru sozio-ekonomikoaren aldeko ekimenak eta politikak, aldaketa politiko eta sozialerako ezinbesteko osagaiak izango dira. Alde horretatik, erabakitzekeo eskubidea eta bitarteko berrien aldeko borroka soziala funtsezkoa da. Indar harremanen lehian, euskal langileria marko berriekiko posizioetara eramatea nahitaezkoa den heinean, langileria bera eta jendarteko sektoreak prozesu politikoaren aktiboak bilakatu behar dira. Ibilbide honetan euskal sindikalgintzaren gehiengoak plazaratutako dekalogoan lanabes interesgarria da.

Jendarte eredu alternatiboa sortzeko genero zapalkuntzari aurre egitea funtsezkoa da. Emakumeok aukera eta eskubide berdintasun erreala izan dezagun borondate oneko txatalak jarri beharrean egiazko politika feminista egiten hasi behar dugu instituzio guztietan, lanean, kalean, etxean eta noski, gure egituretatik hasita.

### **3.4. Euskal Demokrazia**

Ez dugu burujabetza nahi bakarrik Estatuak euskal herritarroei dagozkigun erabakiak hartzeari utz diezaioten. Ezker Abertzaleak euskal herritarrek parte hartu eta erabaki dezaten burujabetza nahi du. Egiazko demokrazia nahi dugu, Herriari boterea ematen diona, demokrazia zuzena eta parte hartzailea, hain zuzen ere.

Estatuak gero eta gutxiago erabakitzen duten mundu batean bizi gara. Erabaki guneak instituzioetatik gero eta urrutiago daude. Ustelkeriak eta politikagintzaren profesionalizazioak jendea politikatik uxatu egiten du. Bakarrik instituzioak edukiez betez, bakarrik jendeari eztabaidetan parte hartzen utziz, bakarrik jendeari kezkatzen dituen eta eragiten dioten auzien inguruan hitza eta erabakitzeko ahalmena emanez demokrazia biziberrituko dugu. Eta premiazkoa da.

Bilduk gobernatzan dituen instituzioetan eredu berri eta desberdina ikustea behar-beharrezkoa da. Halaber, gure barne funtzionamenduak zer hobetu asko dauka.

## **4. Estrategia independentista garatzeko tresna nagusiak**

### **4.1. Aliantza politiko-instituzionalak**

Instituzioetan eta hauteskundeetan eragina izango duten akordioak eginez, konpromiso taktiko (gatazkaren konponbidea-erabakitzeko eskubidea) eta estrategikoak (Euskal Herriaren egituratzea-Euskal Estatuak) bilduko dituzten aliantzak egingo ditugu. Aliantza eremu honek subjektu politiko berriak eratzen joatea ahalbidetu dezake, era zabalagoan, programa politiko baten jabe izan eta helburu estrategikoetarantz aldaketa politiko eta sozialean aurrera egiteko aukera emango diguna. Ikuspuntu soberanista, independentista eta ezkertiarra izango duen subjektu berri baten sorrerak bere bidea egin behar du, pixkanaka indartuz eta zabalduz.

Azken hauteskunde erronketan Euskal Herria Bai-k eta Bilduk bide honen ahalmena erakutsi dute. Noski, emaitza horiek ematen dituzten aukerak handitzen eta sakontzen jarraitu behar dugu.

### **4.2. Aliantza sindikala**

Euskal sindikalgiaren gehiengoak aldaketa politiko eta sozialaren zein gatazka politikoaren konponbide prozesuan jokatu beharreko papera berebizikoa da. Hau da, helburu taktikoen eta estrategikoen ikusmiran indar harremanak eragitean zer esan eta egin duen esparru oso baten artikulazioaz eta dinamikaz ari gara.

### **4.3. Herri mugimendua**

Euskal Herriak herri mugimendu bizi eta dinamikoa behar du. Benetako jendarte eredu alternatiboa sortzeko eta prozesu politikoa ahalik eta herritar gehienek parte hartuz egin dezagun bere burua eraberritu eta aldatu behar duen herri mugimendua behar dugu. Hurrengo urteetan Ezker Abertzalea ezin daiteke instituzioetara begira gelditu, bertan jardungo dugu, baina kalean herri mugimenduan ere bai. Behar-beharrezkoak diren bi



jardueron arteko orekak eta osagarritasuna bilatu beharko ditugu.

#### **4.4. Ezker Abertzalea**

Fase politiko berri honek Ezker Abertzale berria eskatzen du, duela hogeita hamar urteko ereduak eta tresnak zaharkituta gelditu baitira. Hala, Ezker Abertzaleak fase berrian ahalik eta ongien jarduteko bere burua eraberritu behar du. Ibilbide horretan Sortu antolakunde politiko berria eratzeko eztabaida prozesua garrantzitsua izango da oso, bertan antolakuntza eredu berria erabakitzeaz gain, gure proiektu politikoaren oinarriak gaurkotuko baititugu.

### **5. Prozesu Demokratikoa eta negoziazio estrategia**

Prozesu Demokratikoa, Zutik Euskal Herria-n esan genuen bezala, tresna bat da, gatazka politikoari konponbide demokratikoa emateko tresna, hain zuzen ere. Halaber, gatazka konpontzea helburu izanda, Prozesu Demokratikoa estrategia independentistaren 1. fase bilatzen da. Beraz, estrategia osoaren garapenaren baitan ulertu behar dugu.

Soberan da Estatuak gatazka politikoari konponbide integralik emateko borondate politikorik ez dutela esatea, egunero gure begiez ikusten baitugu. Estatuak gatazka politikoaren konponbidera behartu beharko ditugu eta aldebakarreko urratsetatik aldebioketara igarotzeko bidea egin beharko dugu. Gainera, Estatuak prozesua desitxuratzeko ahalegin guztiak egingo dituzte, horretarako negoziazio dinamika guztia errail teknikora mugatu nahiko dute eta hartan ere korapilatuta suerta gaitetzen hamaika gezur esango eta hamaika iruzur egingo dituzte. Estatuak nekez onartuko dute Euskal Herria asimilatzekeo estrategiak porrot egin duela. Segituko dute beraien aurrean dagoen autodeterminazio eskubidearen aldeko gehiengo soziala ukatzen. Beraien “garaile-galtzaile kontakizuna” nagusi izan dadin beraien ahalegin guztiak bideratuko dituzte, Ezker Abertzalearen estrategia aldaketa parametro horietara eramanez.

Guk ez dugu momentuz kontakizunik, Euskal Herrian ez baita ezer amaitu. Estrategia berriak ez du ezer amaitzen, orain arteko guztiaren jarraipen logikoa baita. Estatuak nahi ala nahi ez, gure askapen prozesuak aurrera darrai eta, gure iritziz, gero eta sendoago. Gure aurrerapen politikoek haien “kontakizuna” hankaz gora utziko dute, ziur gaude.

Estrategia aldaketarekin Ezker Abertzaleak ez du negoziazioa ere eredu klasikoaren arabera planteatzen. Orain negoziazioa ez da helburu bat. Ez gara borrokatzen noizbait Estatuak negoziatu ahal izateko, baizik eta negoziatuz ere borrokatzen ari gara. Gauzak horrela, negoziazioa gure ildo osoaren mesedetan erabiltzen jakin behar dugun beste tresna bat da. Beste borroka esparru bat, hain zuzen ere.

Zentzu horretan, Ezker Abertzaleak negoziatu behar baldin badu, denbora guztian Euskal Herriari, bere jendarteari, eta nazioarteko komunitateari begira jokatu du, ez bere aurrean eserita egongo den Estatuari begira. Hala, negoziazioan irabazitakoak gure ildo politiko osoa indartzen lagundu behar du eta gure ildo politiko indartzen den heinean negoziazioan ere gero eta posizio indartsuago batean izango gara. Negoziatioa gure estrategia osoaren garapenean aurrera egiteko palanka izan behar du. Horregatik ez dugu negoziatio jarrera posizionalik hartu nahi, hots, ez dugu gure hitzen gatibu bihurtu nahi, ez baititugu iraganaldiko akatsak errepikatu nahi. Ezin gaitzke Estatuak inposatu nahiko dituzten blokeo egoeretan trabatuta gelditu, kalean eta instituzioetan indarrak bilduz jarraitzea gure tresnarik eraginkorrena izanda, blokeoak gainditzeko malgutasuna eta irudimena beharko ditugu.

Maiz Prozesu Demokratikoaren faseak aipatu ditugu, honakoak dira:

- 1. fasea: Minimo demokratikoak eskuratzekoa (legalizazioa, presoen oinarriko eskubideak, eskubide zibil eta politikoak...)

- 2. fasea: Euskal Herriko eragile politikoaren arteko elkarrizketa eta negoziazioaren bitartez Akordio Demokratikoa (proiektu politiko guztiak egingarriak izatea) lortzekoa
- 3. fasea: Estatuak Akordio Demokratikoa aitortzen eta errespetatzen dute, Marko Demokratikoa (eskubide guztiak euskal herritar guztientzat)

Prozesu Demokratikoa egituratzeko bidean honako urratsak egin beharko ditugu: erabakitze eskubidearen aldeko gehiengo soziala osatu, sendotu eta batez ere politikoki aktibatu behar dugu (abertzale guztiak kalera atera behar ditugu, jendarte esparru guztietan jarrera aktiboagoak hartuz), Ezker Abertzaleak lehenbailehen legala izan behar du (guztiok prozesuan baldintza berdinetan aritu gaituzen), preso eta iheslari politikoak etxera ekarri behar ditugu, akordio politikoaren esperoan egon gabe etxera ekarriko dugun preso bakoitza prozesu osoa indartzeko aktibo bilakatu behar dugu. 1977. urteko giroa sortu behar dugu berriro, herritar gehiengo zabala presoak eta iheslariak etxeratzeko eskatuz jarri behar dugu. Seguruenez lan hori egiteko aspaldidanik egondako baldintza politiko eta sozialik onenen aurrean gaude.

Gainera, errepresio bide oro gainditu behar dugu. Estatuak ez dute beraien borondatez errepresioa etengo, guk Herri harresiak eraikiz geldiarazi beharko dugu, jendartearen aurrean errepresioak Estatuaren posizio politikoa higatuko duenean bertan behera utzi beharko dute.

Anoetako eskemari jarraikiz, elkarrizketa eta negoziazio esparruak honako biak dira:

- Euskal Herriko eragile politikoaren artekoa: bakarrik euskal herritarren ordezkariak dagokie nazio izaeraren aitortza eta herri borondatearekiko errespetua finkatuko dituen Marko Demokratikoaren ezaugarriak adostea.
- ETA eta Estatuaren artekoa: konfrontazio armatuari amaiera emateko eta haren ondorioei (presoak, iheslariak, armagabetzea, desmilitarizazioa...) aterabidea emateko negoziazioak

Negoziatio politikoaren helburua euskal subjektu nazionalaren aitortzaren inguruan eta Euskal Herrian herritarren borondatearekiko begirunea oinarri, proiektu politiko guztiak, independentzia barne, egingarri bihurtzeko adostasuna lortzea litzateke.

Estrategia honetan nazioarteko eragileen beharrezko konplizitatea askotan aipatu dugu. Haietako batzuk Bruselako Adierazpenetik gaur egunera arte sekulako lana egin dute, benetan gatazka politikoa konpontzeko borondate handia dutela. Behinik behin Nazioarteko Harremanetarako Taldea, Euskal Herriko eragile politikoaren arteko elkarrizketa eta negoziazioa bultzatzea du helburu eta Nazioarteko Egiaztatze Batzordea, ETAREN su-etena egiaztatzea du helburu, beraien ekimen nagusiak dira, baina ez azkenak.

Prozesu guztietan herrietako jendeak zer egin ez zekiela esan digu. Egia da gutxitan horretan asmatu dugula. Batzuetan zaila da zehazten zer egin dezake gutako bakoitzak bere txikian halako prozesu zail eta konplexu batek aurrera egin dezan, Estatuak jarritako zangotrabetan eror ez gaituzen, erortzen garenean berriro jaikitzen jakin dezagun... Gutako inor ez da negoziatio mahaian eseriko, baina gure herri guztietan euskal preso eta iheslari politikoak etxera ekartzeko herri bilgunea, eskubide zibil eta politikoaren aldeko mugimendu zabala, Gernikako Akordioaren dinamika guztia... badago eta ez baldin badago, egon daiteke. Norbaitek sortzen badu, norbaitek beste jende batekin hitz egiten badu, norbaitek deialdi zabalak lantzen baditu, norbaitek bere herrian aliantza politika berria garatzen eta indarrak biltzeko apustua sutsu eta sendo egiten badu, negoziatio estrategia osatuko eta indartuko dugu. Estrategia bera integrala baita, edo bestela ahula izango da oso. Gure arrakastaren benetako bermeak Euskal Herriko herri eta auzoetan dago eta batez ere haiek dinamizatu behar dituzten Ezker Abertzaleko kideengan.

